Hainbat erritu, ondoan ez ditugunak gogoan izateko

Hilobiak eta oroigarriak txukundu eta loreekin apaintzeko ohitura handia dago, baita hildako senide eta lagunak oroituz, otordu baten bueltan biltzekoa ere

Azaroaren 1a egun seinalatua izaten da egutegian: Santu Guzien Eguna. Jatorri kristauan, elizak santu guztiak gogoratzeko izendatu zuen arren, gaur egun, santuak baino norberak etxean edo inguruan falta dituenak oroitzeko eguna bihurtu da. Belaunaldiz belaunaldi igaro diren errituak, garai berrietara egokitzen joan dira.

Egun honetan, hilerriak lorez betetzeko ohitura bizirik dago oraindik, baina geroz eta gehiago dira lore sorta horiek hilerrietatik kanpo eramaten dituztenak. Hildakoaren errautsak bota edo haren omenez jarritako oroigarrian loreak uzteko ohitura hartu dute aunitzek. Lore sortak, maitasun keinu bilakatuko dituzte eskualdeko loradendatako langileek.

Aunitzentzat jai eguna izanik, bazkariak antolatzeko ohitura ere badago azaroaren 1ean. Mahaiaren bueltan bildu eta aulki hutsak oroitzapenekin betetzeko ahalegina egiten dute. Eta ospakizuna goxatzeko, gozorik ere ez da falta izaten: nork ez ditu dastatu santu hezurrak eta haize kruxpetak?











«Loreak oparitzea keinu sinbolikoa da, omentzeko eta eskertzeko modua»

ANDREA ELIZALDE INDABURU TXIRULA LORADENDA



Andrea Elizalde Indaburu Txirula loradendako jabea da.

Eneritz Iraola LESAKA

Duela hiru urte hartu zuen Andrea Elizalde Indaburuk Txirula loradendaren ardura: «Rakelek erretiroa hartu behar zuela jakin nuen eta herrian lan egiteko aukera probestuz, pausoa ematea erabaki nuen». Ilusioz hartu zuen proiektua eta ordura arte inoiz loreekin lan egin izan ez bazuen ere, bazuen beharrezkoa den begirada artistikoa: «Interiorismo ikasketak eginak nituen, eskulanak betidanik gustatu izan zaizkit eta pixkanaka joan naiz ikasten». Santu Guztien Egunerako buru-belarri lanean ari da orain: «lan aldetik urteko sasoirik gogorrena izaten da. Irailean hasten naiz loreen eta landareen eskaera egiten eta urrian dena prest utzi behar izaten dut azaroaren 1erako».

Bezeroen artean ohitura desberdinak izaten direla aipatu du: «batzuk aitzinetik egiten dituzte eskaerak, baina azken orduan ere jende aunitz etortzen da. Gustuko dute dendara etorri, zer dagoen ikusi eta erostea». Azken urteetan joerak zertxobait aldatu direla aipatu du: «lehenago lore moztuen zentroak ematen ziren gehiago, baina orain geroz eta gehiago dira landareak eskatzen dituztenak, zaintzen badituzu gehiago irauten dutelako». Lore naturalez gain, plastikozko loreak ere baditu dendan, «horien eske ere etortzen da jendea». Lore sorta edo landareekin osatutako zentro bakoitzaren gibelean «uste baino aunitzez lan gehiago» dagoela azpimarratu du Elizaldek: «aukeratzen den lore edo landare bakoitzak bere funtzioa du». Urreliliak, larrosak, ziklamenak, gerberak... aukera zabala da, «garai batean, landare eta lore txuri-berdeak izaten ziren nagusi. Orain lore sortetan jendeak gehiago sartzen du kolorea eta landare zentroetan ere beti saiatzen gara elementu bereziren bat gehitzen». Aholkularitza lana ere egiten du: «batzuk, hagitz argi dute zer nahi duten eta urtero errepikatzen dute lore sorta edo konposizio berdina. Baina badira urtero aldatu nahi izaten dutenak ere». Emaitza ikusgarria izateko «irudimena» da gakoa eta bezeroen eskaera zein den ulertzea ere ezinbertzekoa da: «Lore jakin batzuk oroitzapen eta pertsona batzuekin lotzen ditugu, erranahi berezia izaten dute. Hori irudikatzen asmatzea da nire lana. Loreak oparitzea keinu sinbolikoa baita, omentzeko eta eskertzeko modua».


Aukera handia
kalitatezko produktuetan
Zuretzat hautatutako lore
aukera zabala.
Santu Guztien egunerako
lore bereziak.
Eginiko erosketaren %10,
zure fidelizazio-txartelean
gehituko dugu.
30
1996 | 2026
Landiflor
Landiflor, zure loredenda, egunero zabalik:
9.30 - 12.30 / 13.30 - 18.30
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com
www.venta-peio.com
VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU
FR. +33 9 72 10 40 20
ES. +34 948 625 130









«Hildako pertsonak gogoan izateko orduan, harriak presentzia handia du»

JOXE URRUTIA JUANIKOTENA HARRI LAN



Harri naturalarekin gisa guzietako lanak egiten dituzte Harri Lanen.

Eneritz Iraola LEKAROZ

1986an sortu zuten Harri Lan enpresa, beraz, «40 urte bete» dituzte aurten. Bederatzi laguneko lantaldea osatu dute eta denen buru da Joxe Urrutia Juanikotena amaiurtarra. Gisa guzietako harri lanak egiten dituztela azaldu du Urrutiak: «harri naturala da gure lehengaia eta eraikinen zaharberritzetarako, dekoraziorako, zoletarako... prestatzen dugu». Urtetako esperientzia dute eta harriaren sekretuak «aski ongi» ezagutzen dituztenez, «bezeroen eskaeretara egokitzeko» gaitasuna dutela gaineratu du: «etortzen diren guziei zer nahi duten aditu eta beraiendako aukera hoberena izanen dena erakusten saiatzen gara».

Harriak eskualdeko pasaian indar handia duela nabarmendu du: «Baztan aldean harri gorriztak, Leitzaldean kalizak, baita Igantzin, Beran eta Lesakan ere. Etxalarren hareharriak... leku bakoitzak badu nagusitzen den harri mota bat eta herri horretako bereizgarri bihurtzen da». Dena den, 40 urtean aldaketak izan direla aitortu du: «Lehen dena harri trinkoa izaten zen, orain gehiago hustu eta *txapeoa* egiten da. Duela hogei edo hogeita hamar urte etxeko izkina denetan jartzen zen harria: ateak, leihoak... orain garaiak aldatu dira eta, gutiago, bertze elementu batzuen osagarria izaten da harria». Bada, ordea, harriak presentzia handia izaten segitzen duen ingurune bat: «hildako pertsonak gogoan izateko orduan, harririk ez da falta izaten». Horrekin lotuta, hainbat egiten dituzte: «kanposantuko plakak, estelak, hilobietako tapak, gurutzeak, grabatuak... baita mantentze lanak ere: hilobiak garbitu, harriren bat aldatu...». Santu Guztien Egunaren bueltan, eskaerak izaten dituzte: «badira oraindik ere hilerrian bere txokoa mantentzen duten familiak. Azaroaren 1erako hilobiak txukundu nahi izaten dituzte». Bere ustez, nabari da gizartean ohiturak aldatu direla, «jendeak errausteko geroz eta ohitura handiagoa duenez, orain kolunbario gehiago egiten ditugu. Eskulana txikiagoa da eta merkeago ateratzen da». Oroigarriak ere indarra hartzen doazela dio: «geroz eta gehiago eskatzen dizkigute hildakoarendako erranahia zuen tokiren batean jartzeko oroigarriak». Itxura aldatuta, baina helburu berbera dute: harria bezain iraunkorra izan dadila, falta direnen oroitzapena.